



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
03. Gizarte Ekintza 03. <i>Acción Social</i>	09. Balorazio eta Orientazio 09. <i>Valoración y orientación</i>	310.308 Balorazio eta Orientazio 310.308 <i>Valoración y orientación</i>

Balorazio eta Orientazio Egitarauaren xedea balorazio eta orientazioa dira, hala menpekotasunaren arloan nola ezgaitasunaren arloan.

Alde batetik, ardatza pertsonen gizarte- eta osasun-egoera, bai eta ingurunea ere, baloratzea da, mendekotasun egoera aitortzeko prozedura arautzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 162/2009 Foru Dekretuan xedatuta dagoen bezala (aldaketa: Bizkaiko Foru Aldundiaren 121/2012 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa).

Aipatu den Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuaren abiaburua edo arrazoa autonomia pertsonala babesteari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioa izan da. Lege horrek autonomia pertsonala sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeko oinarritzko baldintzak arautu ditu Autonomiarako eta Menpekotasunari Jaramon egiteko Sistema (SAAD) sortuz. Sistema horretan herri administrazio guztiek parte hartzen dute lankidetzan.

Beste alde batetik, balorazio egitarauaren barruan eskabidea egiten duten pertsonen ezgaitasun graduari buruzko balorazioak sartzen dira, hau da, minusbalio graduaren aintzatespena, adierazpena eta kalifikazio graduari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak ezarri duena betez.

Egitarauaren barruan 6 helburu nagusi daude, muga horretara heltzeko ekintzak biltzen dituztenak.

Lehenengo helburua da, hala eskatzen duten herritarrei, oro har, mendekotasunaren balorazioari buruzko eta eskura dituzten prestazio eta zerbitzuei buruzko oinarritzko informazioa ematea, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoari jarraiki; horrela, informazioa aurrez aurre zein telefonoz emango da, batik bat

El programa de Valoración y Orientación va encaminado a la valoración y orientación tanto en el ámbito de la dependencia como en el de la discapacidad.

Por un lado se centra en valorar la situación social, sanitaria y del entorno de las personas, tal como se establece en el DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 162/2009 de 1 de diciembre, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia (modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 121/2012, de 21 de agosto).

Dicho Decreto Foral viene motivado por la aplicación de la Ley 39/2006, de 14 de Diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, que ha venido a regular las condiciones básicas de promoción de la autonomía personal y de atención a las personas en situación de dependencia mediante la creación de un Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD), con la colaboración y participación de todas las Administraciones Públicas.

Por otro lado dentro del programa de valoración se incluyen las valoraciones del grado de discapacidad de las personas que así lo soliciten, en aplicación del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía, y las acciones que de dicha valoración se derivan.

El programa se estructura en 6 objetivos generales que agrupan las acciones a desarrollar para su consecución.

Un primer objetivo, que consiste en proporcionar al público en general que lo solicita, información básica sobre cuestiones relacionadas con la valoración de la dependencia y las prestaciones y servicios a los que puede tener derecho, en virtud de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, facilitándose información tanto personal como



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
03. Gizarte Ekintza 03. <i>Acción Social</i>	09. Balorazio eta Orientazio 09. <i>Valoración y orientación</i>	310.308 Balorazio eta Orientazio 310.308 <i>Valoración y orientación</i>

espedienteen tramitazioari, baliabide eta zerbitzuei, eta abarrei buruzkoa, bai eta beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu eta profesionalak eskuratu ahal izateko aukerari buruzkoa ere.

Halaber, ahalegina egiten da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionali beharrezko informazio guztia emateko.

Bigarren helburuaren ardatza Bizkaiko Lurralde Historikoko eskatzen duten pertsonen menpekotasun gradua eta maila baloratzea da eta, hori egin ondoren, arreta egitarau indibiduala egitea. Egitarau horren barruan egokienak izango diren esku hartzeko modalitateak zehaztuko dira.

Helburu honetara iristeko bi ekintza burutuko dira.

Lehenengo eta behin, pertsona eskatzailearen maila guztietako balorazioa egingo da, hain zuzen ere, balorazio-taldeek etxera egingo duten bisitaldian. Talde horiek azterketak, elkarrizketak eta gainerako frogak egoki guztiak egingo dituzte pertsona horren egoera erarik ahalik eta onenean ebaluatzeko behar diren datu guztiak biltzearen eta, gero, haren mendekotasun-graduari buruzko irizpen bat eman ahal izatearen.

Bigarrenean funtsezkoa izango da arreta egitarau indibiduala deritzona egitea. Etxean egindako bisitan pertsona eskatzaileak edo bere eskuordeak elkarrizketa pertsonal bat egingo du zerbitzu honetako gizarte langile batekin eta hori egin ondoren eta hala pertsona eskatzailearen lehenetsunak nola Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalak eta elkarrizketa egin duen profesionalak egin duten balorazioa kontuan hartuta, menpekotasun horren gradu eta mailaren arabera dagozkion zerbitzu eta prestazioen artean egokienak diren esku hartzeko modalitateak zehaztuko dira. Elkarrizketa horren emaitza oinarri gisa baliatuko da, ABPk ebazpena emateko.

telefónicamente, principalmente acerca de situación la tramitación de los expedientes, recursos y servicios, etc, y el acceso a los servicios y profesionales que se estime necesario.

Asimismo se intenta facilitar la información necesaria a las/os profesionales de los Servicios Sociales de Base.

El segundo objetivo se centra en la realización de valoración del grado y nivel de dependencia de las personas del Territorio Histórico de Bizkaia que lo soliciten y en la elaboración de un Programa Individual de Atención en el que se determinen las modalidades de intervención más adecuadas.

Para la consecución de este objetivo se llevarán a cabo dos acciones.

En primer lugar se realizará la valoración de las personas solicitantes en todos sus aspectos mediante visita domiciliaria de los equipos de valoración, los cuales efectuarán los reconocimientos, entrevistas y demás pruebas que consideren necesarias y pertinentes para recoger todos los datos necesarios a fin de evaluar de la mejor manera posible la situación de la persona y poder posteriormente emitir un dictamen con el grado de dependencia

En segundo lugar será fundamental la elaboración del Programa Individual de Atención. En la visita domiciliaria la persona solicitante o su representante mantendrá una entrevista personal con un/a trabajador/a social tras la cual y teniendo en cuenta tanto las preferencias de la persona solicitante como la valoración de los/as profesionales de los Servicios Sociales de Base y del o de la profesional que realiza la entrevista, determinar las modalidades de intervención más adecuadas a sus necesidades de entre los servicios y prestaciones a los que tendría derecho según su grado y nivel de dependencia. El resultado de esta entrevista servirá de base para la resolución del PIA.



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
03. Gizarte Ekintza 03. <i>Acción Social</i>	09. Balorazio eta Orientazio 09. <i>Valoración y orientación</i>	310.308 Balorazio eta Orientazio 310.308 <i>Valoración y orientación</i>

Hirugarren helburua menpekotasunaren arloan edozein arazo duten pertsona interesatuei aholkularitza eskaintzea da bai zuzenean eta bai telefonoz informazioa emanda, batez ere gizarte bitartekoei, laguntza eta prestazio ekonomikoei buruz, bai eta espedienteen tramitazioen egoerari buruz ere. Azpimarratu behar da ahalegina egingo dela informazio hori pertsona interesatuaren egoera eta inguruabarrei egokitzeko eta erraztasuna emango zaiola beharrezkotzat joko diren zerbitzu eta profesionalengana eramateko.

Laugarren helburua da ezinduen diziplina arteko balorazioa egitea eta horiei orientazioa ematea, gizartean eta erkidegoan integratuko direla bermatu ahal izateko. Helburu hau betetzeko bi ekimen garatuko dira.

Alde batetik, ezinduen diziplina arteko balorazioa egiten ahaleginduko da. Horretarako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak ezarri dituen arauak beteko dira eta horrela bermatuta geratuko da herritar guztiek baldintza berberetan jaso ditzaketela dagozkien onurak, eskubide ekonomikoak eta zerbitzuak. Balorazioaren ostean bidezko txostenak egingo dira.

Beste alde batetik, orientazioa emango da honako esparruetan:

Ezgaitasun-gradua aitortzearen ondoriozko prestazio eta zerbitzuak erabiltzean egokitasunik handiena lortzearen, dagozkion orientazio-txostenak egingo dira.

Horrez gain, ezindu batzuek dituzten mugikortasun arazoak ahal den neurrian arintzeko asmoz, ezinduak eramaten dituzten ibilgailuak aparkatzeko txartela udalaren bitartez bideratzeko beharrezkoak diren txostenak egingo dira.

El tercer objetivo va dirigido a asesorar a aquellas personas interesadas que presenten cualquier tipo de problemática en el ámbito de la discapacidad, facilitándose información tanto personal como telefónicamente, principalmente acerca de recursos sociales, ayudas y prestaciones económicas, así como de la situación de la tramitación de los expedientes. Cabe destacar que se procurará adecuar la información a la situación y circunstancias de la persona interesada, facilitándole el acceso a los servicios y profesionales que se estime necesario.

El cuarto objetivo consiste en realizar la valoración interdisciplinar y labores de orientación hacia las personas con discapacidad con el ánimo de garantizar su integración en el entorno socio-comunitario. Para la consecución de este objetivo se desarrollarán dos acciones.

Por un lado se tratará de establecer la valoración interdisciplinar de las personas con discapacidad de acuerdo con la normativa establecida por el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, de tal manera que se garantice la igualdad de condiciones de acceso de la ciudadanía a los beneficios, derechos económicos y servicios que le pudieran corresponder. Como consecuencia de dicha valoración se emitirán los correspondientes informes.

Por otro lado se realizarán labores de orientación en varios ámbitos.

Para lograr la máxima adecuación en el acceso a las prestaciones y servicios derivadas del reconocimiento del grado de discapacidad se realizan los pertinentes informes de orientación.

Además, con el fin de paliar en la medida de lo posible los problemas de movilidad que pueden tener algunas personas con discapacidad, se elaborarán informes necesarios para la expedición a través del ayuntamiento correspondiente de tarjetas de estacionamiento para vehículos que transportan personas con discapacidad.



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

<b>SAILA / DEPARTAMENTO</b>	<b>ATALA / SECCIÓN</b>	<b>FUNTZIONALA / FUNCIONAL</b>
<b>03. Gizarte Ekintza</b>	<b>09. Balorazio eta Orientazio</b>	<b>310.308 Balorazio eta Orientazio</b>
<b>03. Acción Social</b>	<b>09. Valoración y orientación</b>	<b>310.308 Valoración y orientación</b>

Eta Justizia Administrazioak aurkeztutako eskabideetan bidezko txostenak egingo dira.

Bosgarren helburua menpekotasun egoeran dauden hiru urtetik beherako adingabeak baloratu eta orientatzeko da. Kasu horretan ere bi ekimen egingo dira.

Alde batetik, mendekotasun-maila eta arreta goiztiarra emateko beharra baloratuko dira, beren gaitasun fisikoak, mentalak eta intelektualak berriz hezteko.

Gainera, arreta integrala eman behar denean banakako arreta plana beteko da eta jaso ditzakeen zerbitzuak edo prestazioak emango zaizkio.

Seigarren helburua ezinduak lan-merkatu arruntaren sisteman sartzen laguntzeko da; horien inguruabarretara egokitutako lanpostuak lortzen lagunduko zaie. Horretarako, lanerako gaitasunerako txostenak egingo zaizkie lan-kontratua sinatuko duten edo lanpostu publikoa lortu duten ezinduei. Lanpostuaren ezaugarriak eta ezinduak dituen gaitasunak aztertuko dira kasu horietan.

Y, en situaciones en que existan peticiones desde la administración de Justicia, también se elaborarán los pertinentes informes.

Un quinto objetivo irá dirigido a realizar la valoración y la orientación de los menores de tres años en situación de dependencia. Para ello se realizarán dos acciones.

Por un lado se valorará su grado de dependencia y la necesidad de facilitar atención temprana para rehabilitación de sus capacidades físicas, mentales e intelectuales.

Además, en aras de realizar una atención integral, se procederá en su caso a realizar el Plan de Atención Individualizado con los servicios o prestaciones a los que pudiera tener derecho.

Un sexto objetivo va dirigido a colaborar en la integración de las personas con discapacidad en el sistema ordinario de trabajo, facilitando el acceso de dichas personas a puestos de trabajo adecuados a sus circunstancias. Para ello es necesario elaborar informes de aptitud laboral a las personas con discapacidad que van a suscribir un contrato de trabajo o van a acceder a una plaza pública. En este sentido se analizarán las características del puesto de trabajo y las capacidades de la persona con discapacidad.